

ELA EUSKAL SINDIKATOA, 1911-1986


Emeretzigarren gizaldian zear burruka aundiak izan ziran Euskalerrian: Karlostarren eta liberalen artekoak, Fueroekikoa, Sabino Arana'rena, industrigintzarena, „Erljioaren eta zientzien arremanak, politika ta abertzaletasunak, industrioletako jente pillak eta oicngatikako erdeldun ujolak joko, naaste ta zalapartarik naiko jalki zuten bai erri zaar ontan.

Industrigintzarekin datoz sozialismoaren eta komunismoaren eragiñak ere. Ola Europan ola Euskalerrian. Ugazabagusiak goian; langille-morroak azpian...

Sabino Arana kristaua zan. Kristautasunak eta abertzaletasunak berotuta ekin zion Euskalerria lantzeari bai ta Eusko Alderdi Jeltzalea sortu ta antolatu ere. Zenbat gizon bikain eman zitu en garai artako Euskalerriak! Siñisteko ere baño geiago noski.

Giro ortan, kristau-abertzaletasunaren beroaldi ortan, erne zan euskal sindikatoa: EUZKO LANGILLIEN ALKARTASUNA (SOLIDARIDAD DE OBREROS VASCOS) ELA-SOV, 1911-ko udan, Bilbo'ko Korreo kalean, euskal langilleak bildu, elkartu ta zaintzea elburutzat zuela.

Bazen olako sindikatoren baten bearrik. Gizona taldeka, elkar teetan bizi oi da; siñeste berak, lan berak, asmo berak, maitasun berak, lurralde berak ennerazitako taldeetan. Industri-oletan



langilleak elkar artu bearrean ziran; euskaldunak elkar artu bearrean ziran

Milla zortzireun eta larogetamaikagarren urtean (1891) Rerum Novarum enziklika ospetsua idatzi zuen Leon XIII'ak. Sozial arazoak Kristau argiz argitu nai zituen Aita Santuak. Bizi-era ta lan-era berrietan kristau arnasa sartu nai zuen; mundu-era berrian kristau-era sartu, mundua salbatzeko.

Estatu askotan ez baizegoen giza-elkarteak eratzeke errez-tasunik, Aita Santuak argi ta garbi aitortzen zuen giza eskubide au: «Giza izatetik bertatik dario eskubide au, inolaz ere zapaldu ezin ditekena». Txarrean artutako gizona gaiztotu egiten baida, langilleria garraztuta, minduta, gerra zaletuta bizi zen. Berezkoak eta bearrezkoak dira sindikatoak, zion Aita Santuak, naiz langille sindikatoak naiz ugazaba sindikatoak. Kristau langilleai zera eskatzen zien: kristau langilleak elkarrekin bildu zitezela, giza bi-zitza ta kristau bizitza zaintzeko ta bikaintzeko; ugazabekin eten aundiegirik gabe; beste giza-taldeak errespetatuz, guztiok billa-

katu bear baidegu guztien-ona (bien común).

Eta kristau sindikato jatorrak jaio ziran ainbat tokitan.

ELA ez da noski kristau sindikatoa. Zenbait eleizgizonek eta abertzalek arnasa eman ziotela, bai, aitortu genezake.

Gipuzkoan Soraluze'k ezagutu zuen leen ELA, 1912'ko Gabonillak 30 zituela. Bizkaian ari ziren taldeak 1914'an elkartu-federatu ziren; Gipuzkoa aldekoak, berriz, 1918'an. Berealaxe asi ziren federazio biak ere elkartu naiez, konfederazioa egin naiez.

Leen Kongresua

Eibar'en ospatu zuten, 1929-ko urrian. Baziren 17 erri-talde Bizkaian, 14 Gipuzkoan eta 18 Bilbon. Beste sindikatoetan ikusiagatik edo «erreibindikatzalle» biurtu zen euskal sindikatoa, orain arteko «lagun-aro itxura» alde batera utziz. Orrezaz gañera taldeak elkar federatu ta zabalkuntza lanari bizi-eroketako asmoak piztu ziran batzar nagusi ortan. Ala ta guztiz ere motel aldia izan zuen. Bi urte igaro ziran Gazteiz'en leen taldea sortu zaneke, eta beste urtebete, Iruña'n sortu orduko. Arrezkeroz, bai, arrezkeroz indar aundia artu ta erruz zabaldu zen.

Bigarren Kongresua

Gazteiz'en 1933-ko udaberrian. Zuaitz sendo, mardul ta adartsua azia zegoen ELA. Ia irureun ordezkari bildu ziren. Lau probintziek Konfederazioa burutu zuten. Manu Robles Aranguiz aukeratu zuten leendakari. Eta leen SOV zena geroz STV izanen da: Solidaridad de Trabajadores Vascos. Izena aldatzeak berak ere zerbait esan nai du.

Gerra zikiña gero. Primo de Rivera'ren egunetan eta 1936'tik aurrera. Zigorrek, baiketak, espetxe illunak, erailketak, erbesteratzeak,... Amaika etxe, eleiza, eskuindar... zaindu ere bai ainbat Ela'tar jatorrek. Emengo ta Europako gerren ondorioz ELA sakabanaturik gelditzen da: Londres'en, New York'en, Mexiko'n, Kolonbian, Venezuela'n, Arjentina'n, Chile'n bilduko dira aal dutenak. Frantzia'n geldituak 1945'an bilduko dira Manu

Robles'ek deiturik. Europa'ko nazio arteko sindikato erakundeetan, CISC, CIOSL-en alegia, sartuta urratuko dituzte Euskadin lan egiteko bideak.

Irugarren Batzar Nagusia. Euba-Eibar, 1976

Aspaldi, 1936'an, ospatzeko zen irugarren Kongresua. Dena gertaturik zegoen, baiñan gerra zitalak galerazi zuen. Berrogei urtez azpi-jokoan, (azpi jokoak ez dira denak zikiñak). Eta azken amabost bat urtetan eragin biziak ELA barnean. Euskadi barruan ziardutenak elkar artzea ta erbestean bizi ziren gidariekin bat etortzea ez baizen lan erreza. Ortxe «Eladio»ak ere ELA berria egin naiez, sozialista ta politikotalde edo biurtu naiez...

Euban, ba, inoiz baño kide geiago, inoiz baño biziagoak eta gogotsuagoak elkartzen dira dagonil gortian. Giro berria dago Euskadin, gizarte berria. ELA ren erakundeak ere berritu egin bear. Urrian, Eibar'en Europa'ko ainbat kide lagun dituztela, burutzen dute batzar amasgarri ura. Gaugeror euskalduna ta langilleen sindikato utsa izan nai du: Gobernu, ugazaba ta politikotalde guztiengandik ondo berezia.

Zabalkundea

Sindikato bazkunen onartzea neurtzen duen legea 1977-ko apirillean agertu zen BOE'en. Egun berean eraman zituen ELA'k eskabide paperak. Maiatzaren biau dakarzki BOE'k onartuak izan diren taldeak: 180. ELA ortxe dago. Indartsu atera da lur azpitik, eta jo ta ke ekiten dio bere lanari.

Moncloa'ko itunak direla, lan araudi (relaciones laborales) berriak direla, Madrid'ek UGT aunditu nai duela, itz eta manifestapen gogorrek egiten ditu ELA'k.

Aunditzen eta aunditzen dator ELA-STV. Gero ta nagusiago. Larogetabiko (1982) auteskundeetan ELA'k 4.644 ordezkari lortzen ditu, UGT'ek 3.548 eta CCOO'ek 2.731. Euskal-sindikato kontzientzia ere sendotzen doakio bere barnean: PSOE'ek eta UGT'ek asmatu araudiak gogor jotzen ditu, Euskadiko Estatutoari ta sindikatoari ziria sartzen dietela-ta.

Industrigintzaren birmoldaketa urteak datoz (84-85). Birmoldaketa basatia, askoren iritziz. Millaka ta millaka langille enplegu gabezia. Madrid'en aurka aserre bizian jaiki da ELA. Gazteiz'ko Gobernuak baditu bere iritzia, eta egitamu berezia ere bai. ELA'k ez ditu onartzen. Eta 1985-ko maiatzaren 1'an, EAJ'en umea omen zenak ortzak erakusten dizka Eusko Jaurlaritzari.

Seigarren Kongresoa

ELA'ren 75 urteurrena dela-eta, Bilbo'n, 1986-ko Apirillak 11-12.

Urtez eta gorputzez oso aundia egin da, bai, ELA. Eta bere 75 urteak aundikiro ospatu nai izan ditu. Or izan dira Bilbo'ko ospakizunean CMT, CIOSL, CES, TUAC Konfederakunde internazionalak; Turkia, Polonia eta beste ogetaka nazioetako ordezkariak, Bilbo'ko Alkate jauna eta abar: Ayala Antzokia gañezka.

Oroitzapena burutu ta iru lan sailli eldu zieten. Lau ponentzi azertu, orraztu ta onartu; gidari-arduradunak autatu; araudi edo estatutoen agindu batzuk aldatu.

Aldaketa au ez zen ezer aundirik: Iru urtero egiten ziren Kongresuak; emendik aurrera lau urtero izanen dira.

Gidari-arduradunen autatzea ere berealaxe burutu zuten. Bai, ba:36 lagunek osotzen duten Batzorde Nazionalerako, 8 ez beste denak leengoak autatu zituzten.

Ponentziekikoa zan lan aundiena. Azken urteotan gañean degun industri krisis larriek eragiñak izan dira. Madrid'en jokabideak makurrak direlako salaketa gogorrak: enpresarioen alde ta Euskadiren eta langilegoaren aurka ari omen da. Gazteizko Jaurlaritza, berriz, txepel omen dabil, ezer egiteko eskubiderik ez duelaren aitzakia emanez, eta bere langilego publikoarekin itxurazko arremarik asmatu eziñez. «Gobernu bien aurrean zorrotzak izatera beartuak gaude eta nagusien aurka ekintza sindikal indartsu eta gogorra emateko premia gero eta nabariagoa

de la ikusten degu».

• Bere el-mugak argi ta garbi jarri ditu batzar ontan.

1- «Enplegua edo lanlekuaren alde egin bear da gogotik» krisisari gaindu aal izateko. «Langilleak lan ordu gutxiago, guztiek lan egin eta obeto bizi aal gaitezen».

2- «Lanpostu berriak lortu bear ditugu; industri mota berriak eta serbitzuak indartu». Ortarako industri egitamu berriak asmatzea nai ta naiezkoa da. Eta egitamu edo lan planifikazio oiek Madril'go ta Gazteiz'ko Gobernuak, enpresarioak eta sindikatoak elkarrekin onartuak, «negoziatuak», ez badira, ustel aterako dira.

3- «Sindikalgintza indartu, lan-bideak eta bizi-bideak obertzeko». «Kapitala indartzen eta hazten ari da, geroago ta aberastasun eta botere gehiago eskuratzen ari da langilegoaren kontura. «Hau dugu eginkizun nagusia: gure ekintza bizkortu, sindikatoa errespetatuz, maila guztietan negoziaketa ohiturak eta egiturak eraiki, nunahi langileon eskubideak eta interesak defendatu».

4- «Antolatzea, etorkizunerako garantia». Gaurko munduak aldaketa aundiak eta ugariak daramazki. ELA erakunde, organizazio sendoa ta osasuntsua dago, baiñan gizartearekin batean aurrera jo bearra du. «Organizazio batek ondo sustraitua egon behar du, funtsean aldatu eziñezko alderdi zenbait izango ditu, baiñan aldi berean aldakorra izan behar du, egoera berriek eskatzen dituzten zuzenketak egiñez». Ona, ba, ondorengo lau urtetan egin bearrekoak: Sindikatuaren adarrak sendotu, kideak ikasigoak egin, «negoziaketa kolektiboen» erreztutzeko bideak urratu, gazteak erakarri, lege ta dokumentazio serbitzuak egokitu, Europako erakundearen barnean izateak dakarzikin ondorioei erantzun jatorrak asmatu.

Donostian Donosti ta gorostian gorosti

Euskal sindikatoa bearrezkoa degunik ezin inork ukatu. Sindikato au, ELA-STV au GUZTIZ egokia denentz esaterik ez dagokigu. Nor ala zer BIDE ON BAKARRA?

Nik neuk utsunetxo bat edo beste ikusten diotela aitortu-ko nioke. Alegia: industriarekiko arazo larriak; Gobernuai, enpresai, kapitalismoari buru eman naiak indar geiegi jaten ote dion nago; «erreibindikatzalle» uts ez ote den gero. Ekintza au berezkoa du sindikatuak, jakiña; baiñan orretan lotuegia ez ote da agertzen azken bolada ontan? Langilegoak, sindikatoak berak ez ote lituzke BERAK urratu bear langilleak eta beren familiak ikasiago, lasaiago, elduago, paketsuago bizi aal izateko zenbait bide? Sindikatoak berak ez al luke saiatu bear gazteek opizioak ondo ikasi ditzaten, lana zintzo egiten eziak ditezen?

Luis Zubizarreta